



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

ALDUNDIAK “AHAL DAN LEHENENGO MINUTUTIK” ZABALDUKO DAU ESKOLAKO KIROLA

- Lorea Bilbao Euskera, Kultura eta Kiroletako Foru Diputatuak, azaroaren 7tik aurrera eskolako kirol jarduerak ixtera behartu eban Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren betetea azaltzera etorri da Bizkaiko Batzar Nagusietara.
- Oposizionoko taldeek eskolako kirola barriro aktibetako eskatu dabe.

(Bilbon, 2020ko abenduaren 2an). Azaroaren 7tik aurrera Bizkaiko eskolako kirola bertan behera izteko erabagia tratatu da gaur Batzar Nagusietako batzordean. Bizkaiko Foru Aldundiak, koronabirusaren pandemiari aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak ezarri ebazan neurriak bat etorrita, “bestelakorik adierazo arte” eten eban Eskola Kirola programea lurralde osoan. Egun horretan sartu zan indarrean prebentzinozko neurri espezifikoak ezarten ebazan Lehendakariaren dekretua. Horreen artean “ezin zala ezelango entrenamenturik edo lehiaketarik egin” egoan. Lorea Bilbao Euskera, Kultura eta Kiroletako diputatua Batzarretara etorri da bere sailak dekretu hori “derrigorrez” bete behar izan dauela azaltzeko, eta “ahal dan lehenengo minututik” jarduerak hori zabaltzeko konpromisoa erakutsi dau, umeen garapenerako daukan garrantzia kontuan izanda.

Gaia EH Bilduk, murrizketa hori azaltzeko Bilbaoren presentzia eskatu dauen Batzarretako taldeak, zabaldu dau. Zigor Isuskiza batzordekideak, eskolako kirola bertan behera izteko “zein datutan” oinarritu dan argitzeko eskatu deutso Aldundiari, izan be, bere esanetan, Eusko Jaurlaritzaren dekretuak interpretazino “desbardinak” euki leikez. Gogoratuazo dauenez, etete horrek Bizkaiko 6 eta 16 urte arteko 45.000 ume ingururengan dauka eragina. Hogeta hamar kirol modalitate baino gehiagotan aritzen dira, eta 700 erakunde dagoz inplikauta, federazinoen, taldeen, ikastetxeen eta udalen artean.

Euskera, Kultura eta Kiroletako diputatuak azaldu dauenez, Aldundiaren erabagia Eusko Jaurlaritzaren dekretua bete behar izatean oinarritzen da. “Gehiago edo gutxiago gustauta be, ez geneukan beste urtenbiderik. Dekretua bete egin behar zan”. Lorea Bilbao esan dauenez, badakie zelango kaltea eragiten dauen erabagi horrek erakunde horreetan guztietan eta umeen garapenean, baina “lehentasuna” personaren osasuna zaintzea zan. “Ez egoan bestelango interpretazino posiblerik”, adierazo dau Bilbao, eta “ahal dan lehenengo minututik” eskolako kirola aktibetako konpromisoa erakutsi dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Eskolako kirola guztiz ixteko neurri horrek desadostasunak sortu ditu Batzarretako taldeen artean. Eduardo Andraderen (Talde Berezia-PP) eretxiz, Aldundiak ez eban jarduera hori itxi behar. Bat dator kirol federazioek adierazotako eretxiagaz. “Covid-19ra egokitzeke prest dagozala” esan dabe.

Emilio Lobato (Elkarrekin Bizkaia) bat etorri da EH Bildugaz, Aldundiak LABIn “bere jarrerea” defendidu behar dauela esatean, baina diputatuak esan dauenez hori holan egiten da. “Gauza errazera joan dira. Mahaian erabagiten dana modu administratiboan berrestera mugatu dira”, esan dau Lobatok, eta eskolako kirolak umeen garapen fisikoan eta psikikoan daukan garrantzia “modu serioan hartzeko” eskatu dau, “eskolako ohiko jardureagaz hori gertatu izan balitz, astakeria irudituko jakun”.

Foru Gobernua eusten daben Batzarretako taldeetatik bat etorri dira hartutako erabagiagaz. Ana Berta Campo sozialistak azpimarratu dauenez, erabagi “gatxa” zan arren, une haretan jasaten ari ginan pandemia egoerak derrigorrez hartzera behartu eban. “Urtarrietik aurrera” eskolako kirola barriro zabaltzeko aukerea egongo dala uste dau.

TURISMOKO GIDARIAK

Horren ostean, Batzar Nagusietako Euskera, Kultura eta Kiroletako batzordeak, Bizkaiko bisita gidau kulturalen eta turistikoaren erregularizazioaren ganeko arauz besteko proposamen bat landu dau. Elkarrekin Bizkaia taldeko Emilio Lobatok sektorearen erregularizazioa defendidu dau, liberalizazioa “laneko prekaritatea, intrusismo profesionala eta zerga arloko irregularitasunak” sustatzen ari dalako. Horretan oinarrituta, hiru gauza eskatu ditu: beharginen eta inplikauta dagozan erakundeen arteko alkarrizketarako mahai bat sortzea, diagnostiko bat egiteko; neurriak ezartea Bizkaian kultur ondare moduan katalogauta dagozan lekuetara egindako bisitak gidari kultural eta profesionalak egin daiezan; eta Eusko Jaurlaritzak beste espazio batzuetara bisita gidau kulturalak eta turistikoak egiteko eskumenak arautu daizala.

Arauz besteko proposamena ez da onartu, kontrako 9 boto (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak), aldeko 5 boto (EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia) eta abstentzino bat jaso ditualako. Foru Gobernua eusten daben talde biek azaldu dabenez, ezezko botoa emon dabe euskal erakundeek gai horreek daborduko landu dituelako edo lantzen ari diralako, eta horreetako batzuk Euskadiko turismoaren ganeko 13/2016 Legean agertzen diralako. Bizkaiko ondareari jagokonez, Mikel Bagan jeltzaleak defendidu dauenez, “emoten dauen zerbitzuaren kalidadea bermatuta dago”. EH Bildu, gai horren inguruko diagnostiko bat egitearen alde agertu da, eta Talde Berezia-PPk leku zabaletako eragile turistikoaren ganean legeak ezartzearen inguruko zalantzak



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

agertu ditu. “Basoan atea jartea” izango litzateke, Europako arautegiak ezarten dauenez leku publikoak “libreak” diralako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN ABRIRÁ EL DEPORTE ESCOLAR “DESDE EL PRIMER MINUTO QUE SEA POSIBLE”

- **La Diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, Lorea Bilbao comparece en las Juntas Generales de Bizkaia para explicar el acatamiento del decreto del Gobierno vasco que obligó a cerrar la actividad deportiva escolar desde el 7 de noviembre.**
- **Los grupos de la oposición piden que se active de nuevo el deporte escolar.**

(Bilbao, a 2 de diciembre de 2020). La decisión de suspender el deporte escolar en Bizkaia desde el 7 de noviembre, se ha tratado hoy en una comisión en las Juntas Generales. La Diputación Foral de Bizkaia, en consonancia con las medidas establecidas por el Gobierno vasco para frenar el avance de la pandemia de coronavirus, suspendió “hasta nuevo aviso” el programa Eskola Kirola en todo el territorio. Esa fecha entró en vigor el decreto del lehendakari por el que se determinaban medidas específicas de prevención, entre ellas que no se podían realizar “ni entrenamientos ni competiciones”. La diputada de Euskera Cultura y Deporte, Lorea Bilbao ha comparecido en la Cámara vizcaína para explicar el acatamiento “obligado” de su departamento a este decreto y se ha comprometido a abrir esta actividad “desde el primer minuto que sea posible”, dada la importancia que tiene para el desarrollo del menor.

El debate ha sido abierto por EH Bildu, grupo juntero que había solicitado la presencia de Bilbao para que explicara dicha restricción. Su apoderado, Zigor Isuskiza, ha pedido a la Diputación que aclare “en qué datos” se han basado para suspender la actividad deportiva escolar, ya que, a su juicio, el decreto del Gobierno vasco se presta a “diferentes” interpretaciones. Ha recordado que esta suspensión afecta a cerca de 45.000 niños y niñas de entre 6 y 16 años de Bizkaia, que realizan su actividad en más de treinta modalidades deportivas, que implican a 700 entidades, entre federaciones, clubes, centros escolares y ayuntamientos.

La diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte ha respondido que la decisión de la Diputación se justifica por la obligación de cumplir el decreto del Gobierno vasco. “Nos guste, más o menos, no teníamos otra salida. Había que cumplir el decreto”. Lorea Bilbao ha manifestado que son “conscientes del perjuicio” que tiene esta decisión para todas estas entidades y para el desarrollo de niños y niñas, pero “lo primordial” era velar por la salud de las personas. “No había otra interpretación posible”, ha sostenido Bilbao, que se ha comprometido a activar el deporte escolar “desde el primer minuto que sea posible”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La medida de suspensión del cierre total del deporte escolar ha suscitado discrepancias entre los grupos junteros. Eduardo Andrade (grupo Mixto-PP) cree que la Diputación no debería de haber cerrado esta actividad, ya que coincide con la opinión expresada por las federaciones deportivas que han dicho que “están preparados para adaptarse al covid-19”.

Por su parte, Emilio Lobato (Elkarrekin Bizkaia) ha coincidido con EH Bildu en que la Diputación debe defender en el LABI “su propia postura”, algo que la diputada opina que se hace. “Han ido a lo fácil. Se limitan a refrendar administrativamente lo que se decide en esa mesa”, ha dicho Lobato, que ha pedido que “se tome en serio” el deporte escolar dentro del desarrollo físico y psíquico de los niños y niñas, “porque si esto ocurriera con la actividad escolar normal, nos echaríamos las manos a la cabeza”.

Desde las filas de los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral, han compartido la decisión tomada. La socialista Ana Berta Campo ha destacado que pese a que era una decisión “difícil”, la situación de la pandemia en aquellos momentos obligaba a tomarla. Confía en que se pueda abrir el deporte escolar “a partir de enero”.

GUÍAS TURÍSTICOS

A continuación, la comisión de Euskera, Cultura y Deporte de la Cámara ha debatido una proposición no de norma sobre la regularización de las visitas guiadas culturales y turísticas en Bizkaia. Emilio Lobato de Elkarrekin Bizkaia, ha defendido una regularización del sector, ya que la liberalización está fomentando “la precariedad laboral, el intrusismo profesional e irregularidades fiscales”, ha dicho. En base a esta argumentación, ha pedido tres cosas: la creación de una mesa de diálogo entre trabajadores e instituciones implicadas para hacer un diagnóstico; el establecimiento de medidas para que las visitas en espacios catalogados como patrimonio cultural en Bizkaia sean realizadas por guías culturales y turísticos profesionales; y que el Gobierno vasco regularice la competencia de la realización de visitas guiadas de carácter cultural y turístico en otros espacios.

La proposición no de norma ha sido rechazada por 9 votos en contra (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos), 5 votos a favor (EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia) y 1 abstención. Los dos grupos que sustentan al Gobierno foral han explicado que su negativa se fundamenta en que las instituciones vascas ya han acometido o están acometiendo dichos asuntos, algunos presentes en la Ley 13/2016 de Turismo de Euskadi. En el caso del patrimonio vizcaíno, el jeltzale Mikel Bagan ha defendido que “está garantizada la calidad



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

del servicio que se ofrece”. Por su parte, EH Bildu ha apoyado que se realice un diagnóstico, y el grupo Mixto-PP ha mostrado dudas sobre el hecho de que se pueda legislar sobre el agente turístico en espacios abiertos. Supone “poner puertas al campo”, ya que la normativa europea establece que los espacios públicos son “libres”.